

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 211. alea - 2016ko urria



**Euskal Jaia,
sasoï betean**



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARJE CASTRO IRIBAREN

Masajista

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarrak

25 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Tel.: 677 557 615

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORKA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com





erabili euskara
utiliza el euskera

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK

euskara klaseak • clases de euskera



16-17 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

Langabetu, ikasle eta gurasoek,
Matrikula ERDIA

Ikastaro amaieran BEKAK denentzat.
(Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

DEBA: 10:00 – 12:30 / 17:00 – 19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 12 – Tel.: 943 192 236

AURKIBIDEA

04

IRITZIA

Gutunak, Nekane Goikoetxearen kolaborazioa ("Game of Thrones")...

06

KRONIKA

1936ko irailaren 23a gogoratu. Ekimen ezberdinak egin dira 80. urtemugan

08

ALBISTEAK

Zinemaldiko euskal zinemaren saria irabazi du "Pedaló" filmak

12

ERREPORTAJEA

Debako Musika Bandak Aldahitz egitasmoan parte hartu du

14

B. GAZTEA

Ikasturte hasiera Mendatan, elkarrizketa Roberto Fernandezi, inkesta...

Gogoeta prozesua abiatzera goaz. Zatoz zu ere gurekin!

Martxoan egindako urteko batzarrean onartutako gogoeta prozesua abiatzera doa Zuhatza Euskara Elkarteak. Etorkizunean nondik jo, zer egin eta nola, definitu nahi du elkarteak. Horiek izango dira galdera gakoak. Eta, horretarako, herriko euskaltzaleak bildu eta gaur egun euskarak eta euskalgintzak herrian bizi duten egoera aztertu nahi da, etorkizuneko helburu eta erronkak definitzeko. Hiru hitzordu nagusi izango ditu gogoeta prozesuak eta saio horietara ahalik eta jende gehien erakartzeko ahaleginean buru-belarri jardun dugu azken asteotan, Topagunearen laguntzarekin.

"Debarrak Euskaraz barra-barra" leloari helduta, lehenbiziko saioa urriaren 22an egingo da, Agirre jauregian (10:00etan). Azaroaren 5ean eta 19an egingo ditugu beste biak. Interesa duen edonork parte har dezake gogoetan, baina aurrez izena ematea eskatzen da. Gogoetan parte hartu edota informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943191383 telefono zenbakira edo idatzi mezua koordinatzailea@zuhatza.com helbidera.

Zuhatza Euskara Elkarteak



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizuntza, Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietia, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

ATXA

Itziar, Deba eta inguruko presoen senideek ederki ezagutzen genuen Mikel Oñederra, "Atxa".

Beti prest zerrendetan sartzeko, bisitetako hutsuneak betetzeko... bere esku bazegoen, ez zen ez presorik bisitarik gabe geratuko. Eta sarritan, senideren bat joan ezinik zebilenean, kotxean hartu, bisitara eraman eta gero etxera bueltan ekarriko zuen, nahiz eta bera, bisitarik gabe, kartzelako atean geratu.

Horrelakoa zen gure Atxa. Mutil

ona eta jatorra inor bada; beti presoei eta senideei laguntzeko prest. Makina batekin badiagu, baina hirekin bereziki, Atxa, inoiz kitatu ezingo diagun zorra.

Nire anaia kartzelatik irten zenean, hainbat eta hainbat urtetan pasatzea tokatu zitzaiguna oso gogorra izan zela esan nian nik, baina bide ikaragarri luze horretan inoiz ez ginela bakarrik sentitu. Eta hori esatean hitaz ari ninduan, Atxa, beste askoren artean, bai, baina hirea gurekiko apartekoa

izan dela azpimarratu nahi diat.

Eta orain joan haiz. 48 urte besterik gabe, eta oraindik bizitza oso bat aurretik huela, gaixotasun malapartatu bat tarteko, joan haiz, eta hemen geratu gaituk gu, gure esker ona behar bezala adierazi ezaren sentsazioarekin.

Mila esker, Atxa; besarkada bat hire senide eta lagunei.

Agur eta Ohore ATXA!!! Gure laguna... gure "Mirentxin" partikularra...

Ixidro Gabirondo

Gure lagun Mikel Oñederrari (Atxa)

*Oain dela denbora gutxi
joan zea gure ondotik,
gure bihotzak urratu
zaizkigun egun horretan.
Mila oroitzapen dauzkat
hunkigarriak gehienak.
Zeneukan irribarrea
ez zait sekula ahaztuko.*

*Bihotza zeneukan bete
urrezko maitetasunez,
behar genuenentzako
eskuak beti zabalik.
Entzuteko beti gertu.
Leialtasunez jokatu.
Asko maite zaitugula
Mikel ez ezazu ahaztu!!!
**Doinua: Habanera*

Marian Larrañaga



Eskerrik asko, Atxa!

"Atxa" goitizenez ezagunagoa gure artean.

Ekintzailea, lagunaren laguna, eskal preso eta errepresaliatu politikoak beti bihotzean zeramatzana. Horrek bultzatu zuen, hain zuzen, "Gidari Solidarioa" izatera.

Bere partaidetzak, besteak beste,


hainbat guraso, senide eta lagun Espainia eta Frantziako kartzeletara hurbiltzea ahalbidetu du, bisitak, bisabisak, malakoak, negarrak, irriak, pozak, kontrolak, katxeoak... denak gaindituz.

Eskerrik asko Atxa, eskerrak errepideetan ibiltzen garen Gidari

Solidarioen izenean. Hemendik aurrera, gure furgonetan etorriko zara beti, beste bederatzi senide eta lagunekin batera.

Kilometro Kilometro Askatasuneruntzeko gidariak.

Gidari solidarioak



NEKANE GOIKOETXEA

Game of Thrones

Familiako pertsona bat sumatu nuen duela aste batzuk kexaka. Ematen duela Gipuzkoa Zumaian bukatzen dela, tren gehienak ere Donostiatik-Zumaiara bitartean jartzen dituztela, Flisha turistek Zumaiarekin lotzen dutela. *Eta Deba zer?* moduko bat nolabait...

Beharbada ez zaio arrazoirik falta izango, alde batera. Politika instituzionalek *hiria* bultzatu nahi dute. Hirien indarra handitzeko politikak egiten dituzte, tartean turismo- ala garraio-politikak. Lurralde antolamendua bera berrikusteko prozesu bat jarri dute martxan (LAGen Berrikuspenaren Aurrerapena: Lurralde Eredu berria. Lurraldea 2040) eta izendapena argigarria da. Ez diote *Euskal Herria* deitu, *Euskal Hiria* baizik. Modernitatean hasitako urbanizazio prozesuaren aldeko haizeak dira guztiak.

2016an ekimen turistiko handiena DSS kultur hiriburutza izan da. Inoizko ekitaldi kopuru handiena *hirian* zehar. Nire iritziz gehiegizkoa izan da ekin beharraren ekinez antolatu den ebento kopurua. Partehartzea bultzatu beharraren logikak bultzatuta, neurrigabeko agenda antolatu da urtebeterako *hirian*, akzio superabita. Horren atzean kontsumismoaren logika eta konplexu asko egon litezke. Europako beste hiriburutza guztiakin konparatuta, hala aitortu ziguten lan-taldeko kide batzuek, ekimen kantitatean Donostia txapeldun. Lan-taldea arnasesutika iritsi da udazkenara, noski.



Zalantzarik gabe ekimen asko izan dira interesgarriak baina antolaketak baditu bi alderdi zalantzarri direnak, nire iritziz. Bata da gorago aipatu dudana programazio-aktibismoa; bestea Donostiatik kanpoko lurraldeak nekez gozatu duela kultur hiributza. Hirizentrismo artifiziala iruditu zait, lurraldeak berez duen oreka aintzat hartu ez duena. Aztergai polita izan liteke lurralde ereduaren berrikuspen prozesurako.

Zumaian grabatuko dute, bestalde, Tronujokoa ikus-entzunezkoa. Aztoratuta omen dabilta. Nork jakin horrek nola eragingo duen lurralde-ereduan. Zein turismo mota ekarriko du? Nolako aurrekaria da 8 apellidos vascos filmarena? Horrek guztiak mereziko luke aztergai izatea balizko *Euskal Hirian* ere.

Ez dakit nik zein leku izango duen Kulturak Euskadi 2040an irudikatze lanetan. 30 urte EEBBetan daramazkien Joseba Gabilondo soziologoak aurreikusten du (Globalizazioak eta Erdi Aro Berria, 2016) etorkizun hurbilean datorren gizarteak Erdi Aroan dituela aurrekariak; alegia, barbarismoa, feudalismoa eta aristokrazia elitista ezaugarri zituen garai luzean. Momentuz, zinemagileak iritsi dira Zumaiara, Erdi Aroko kontuekin etorri ere. Kulturak erakusten digu atzeak nola dantzatu.

Agian ez da hain txarra Donostiatik datozen tren guztiak ez iristea Debara.

1936ko irailaren 23a gogoratuz

1936ko irailaren 23an tropa "nazional"ak Deban sartu zireneko 80. urteurrena gogoratu dugu irail honetan. Eta garai historiko haren berri jakin eta hartatik ikasteko asmoz, zenbait ekintza burutu ditugu



Lehenbiziko hitzaldia **Jesus Gutierrezek** eman zigun, errepublikaren bilakaera Debarrenan eta bereziki Deban azalduz. Bigarrenean **Josu Chueca** izan genuen hizlari, "1936-1939ko gerratea Deban eta diktadura frankistaren lehen urteak" gaiari buruz. Hirugarrenean, Aranzadi Zientzia Elkarte **Pako Etxeberria**, "Hobi-hustekak memoria historikoaren atal direnez" gaiaz aritu zitzaigun.

Azkenik, Itziartik Debara ibilaldia antolatu genuen, **Xabier Laka** gidari zela. Eliza ofizialaren rola, frankistek hildako apaizak, **Telesforo Arantzadi** eta **Joxemiel Barandiaranen** ihesaldi larria (Urteaga haitzuloan ari baitziren industetan), jende arruntaren ihesa, karlista eta erreketen aurrerakada, Arronamendiko hilobiratzeak eta abar azaldu zizkigun bidean.

Deba eta itziartar multzo bikainak hartu zuen parte Agirre Jauregian, Burugorri eta Santa Maria elizan eman-

dako hitzaldietan, euriari aurre eginez burutu genuen ibilaldian bezalaxe.

Historialariek diotenez, Gerra Zibilak gerra egiteko era berri baten aroa zabaldu zuen, gerora "gerra osoa" deitu izan zaiona. Hau da, gerra ez da toki jakin batzuetara mugatzen, edozein herri edo edozein giza talde jomuga bilakatzen dira gerra egiteko era honetan. Frontea nahiz herrietako biztanleak, ospitaleak nahiz egoitza militarrek, guztiak dira helburu militarrek. Biztanleen artean izua eta sufrimendua zabaltzea zilegi bilakatzen da garaipenaren izenean. Arerioa sunsitzeko lasterketak ez du inongo araurik onartzen. Horrela, gerra biztanle guztiak pairatzen dute, ez du axola zibila edo militarra izatea.

Era horretan, gerra bukatu ondoren gelditzen diren zauriak sakonagoak bilakatzen dira, gerra beraren sufrimendua luzatu eta zabalduz. Gurean, gerra bukatu eta ia hirugarren belaunaldia iritsi arte ez dugu egoera hau hizpide izan.

Etxe askotan oraindik orain, kontu asko argitzeko daude: desagertutako senideak, atxiloketak edo erbesteratuen historia ugari. Ama Birjina bistaren ondoan lurperatuta dauden gorpuek erantzun bat behar dute, laurogei urte dabilta galdera berdina egiten: Gurekin zer gertatuko ote da? Hamaika aldiz pasatu gara bertatik eta ez dugu ezer entzun. Gure ondorengoei guk egin gabeko lana utzi beharrean, egin dezagun guztion artean. Bide hori jorratze aldera eta lehenengo urrats modura, bertan oroigarri bat jartzeko proposamena egiten dugu. Herritar guztion artean egin beharko genukeen ekintza honekin, gerraren itzalari kokapen bat emateaz gain, orain arte izan ez duen ikusgarritasun bat emango genieke borroka haietan desagertutakoei.

Gertakari larri haien kontakizuna zabaldu behar zaie belaunaldi berriei, munduan zehar hainbeste aldiz eta garai desberdinetan errepikatzen ari dena

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA





gure lurretan gertatu zela jakin dezaten. Hemendik ihesean joan zirenen gertaera berberak errepikatzen direla ikusteak lotsarazi behar gintuzke. Gure aitona-amonek jasandako guztia ahaztu egin zaigu eta berriro, historiaren jirabirak medio, irudi berdinak ikusten ditugu, baina oraingoan gu ari gara borroko lanetan, hesiak eraiki eta mugak ixten. Gurseko kanpalekua txikia suertatuko litzateke gaur egunean datozen errefuxiatu uholdeei aurre egiteko.

Gogoratzeak jakitea eta ikastea esan nahi du. **Gizarte Alzheimerrak** harrapa ez gaitzan, ez ahaztea. Deban, Arronamendi parean eta auskalo beste zenbat tokitan lurperatuak dauden gorputzek adierazten duten bezala, oraindik itxi gabe datzan eta, ondorioz, muga handiak dituen nolabaiteko demokraziak utzi digun historiak ez ahaztea.

Egungo egoerari loturiko ikasketa horretan, ikusten dugu 36-39ko gerrateko zenbait gorabehera errepikatzen ari direla Ekialde Erdialdean. 36koan Europako gobernuek euren buruak neutralizatzen aitortu zituzten, gehien ordaintzen zienari armak saltzen zizkieten bitartean; gaur egun, Eki Erdialdean,

Errusia, Estatu Batuak, lehenago Sobietar Batasuna, Alemania nazia eta Italia faxista bezalaxe, euren aliatuei laguntzen ari dira, batzuk eta besteak ospitaleak eta jende xehea bonbardatzen duten bitartean.

Eta Europako gobernuak? Ba... orduan bezalaxe, ez direla interbentzionista, edo erdizka, aitortuaz batera, armak saltzen dizkiete, *Made in Euskadi* daramaten armak ere bai.

36ko errefuxiatuak Frantziara joan zirenean, barneratze esparruetan sartu zituzten eta haietako asko naziek harrapatu eta kontzentrazio esparruetara eramane zituzten. Orain, Europak mugak ixten dizkie errefuxiatuei, ez ditugu errefuxiatuen babeserako Nazioarteko Hitzarmenak betetzen eta Europako politikaren kontura negoziarioa egiten duten mafien esku uzten ditugu. Giza

bitzita ugari bidean galdu ostean iristen dira Europara eta guk Nazioarteko Amnistia taldeek eta Mugarik Gabeko Medikuek estali gabeko espetxetat salatu dituzten kontzentrazio esparruetan sartzen ditugu, errefuxiatuek irtetarik eta kazetariak sartzerik ez dutela.

Zigor-beldurrik gabe tiro egiten duten horiez gain, gogoan eduki behar dugu armak egin eta salerosten dituen jendea ere.

Ikas dezagun historiatik eta jar gaitzen gerratea pairatu eta Europara atez joko datozen errefuxiatuen azalean. Gure aurreko belaunaldiek ere jasan izan dute horrelakorik, eta Europa nahiz Amerikako jendearen elkartasunak babestu zituen.

*Xabier Laka eta Jose Luis Albizu
Deba-Itziar 1936-2016*

OROIGARRIA

Hiru pertsona hilobiratuak izan ziren tokiak zuzen zehaztu ahalko bagenitu (edo ez), hobi-husteak egin ahalko bagenitu (edo ez) eta oraindik hildakoen berri izango ez bagenu ere, MONOLITO bat jartzea proposatzen dugu, Arronamendiko bidean, 1. hobia dagoen tokian.

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

Ikasturterako eskaintza berria dakar Debanaturak

Ikasturte berri, eskaintza berri. Datozen hilabetei begira, tailer, ikastaro eta beste hainbat ekimenaz osatutako egitaraua aurkeztu du Debanatura elkar-teak; hurrei zuzenduta daude ekintza batzuk, eta helduei besteak.

Bi urte eta erdi eta 6 urte bitarteko hurrei zuzenduta dago, adibidez, **Naturan Hezi** proiektu pedagogikoa. Asteazken zehar eskainiko da, goizetan (10:00-13:00), eta haurrak naturan eta aire librean jolasteko eta hezteko helburua du egitasmoak.

Kultur Elkarteko Gela Berdeak **Iudoteka sortzailea** hartuko du astearteetan (16:30-19:00). Espazio egokitu horretan hiru eta bederatzi urte bitarteko haurrak egon ahalko dira, heldu batek lagunduta: eskolaz kanpoko jarduerak alternatibo

gisa aukera ezberdinak egongo dira bertan: eskulanak, pintura, hiri-baratza, jolasak...

Aurtengo beste berritasun bat **Zirku-Clown-Antzerkia** ikastaroa izango da, 5 eta 12 urte bitartekoentzat. Haurren garapen kognitiboan, afektiboan eta psikomotorrean onuragarri diren malabarrrak, jolasak, clown... landuko dira ikastaroan. Saioak hileko lehenengo igandee-tan egingo dira -helduentzat, berriz, hilean behin egingo da-. Zurrumuru antzerki taldeko Puy Oses izango da zirku tailerren gidari.

Helduei zuzendutako ekimenen artean, urritik abendura burutuko den **sendabelarren ikastaroa** aipa genezake. Asteazken arratsaldetan egingo da (19:00-20:30), hilean bi saio.



Baso Eskola pedagogiaren hastapen ikastaroa Geoparkean, "Mindfulness" tailerra, marmelada eta kontserben inguruko ikastaroa... ere iragarri ditu Debanaturak ikasturte honetarako.

Ekimenetan izena eman edo informazio gehiagorako: 695 783 656, debanatura@hotmail.com edo elkartearen lokalean (goizetan eta arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara).

Emakumea Surflari

Hemezortzi urtetik gorako emakumei zuzendutako programa da Emakumea Surflari. Emakumeen partaidetza sustatzea eta partaideen maila tekniko eta taktikoa hobetzea ditu helburu nagusi. Proiektua Zarautzen sortu zen, 2014an, eta bi urte beranduago beste bi herritan ere ekimenarekin bat egiteko aukera zabaldu dute.

Deban 15 bat lagunek eman dugu izena proiektuan eta astelehen eta astearteetan biltzen gara olatuak hartzeko (mailaren arabera banatuta). Irailean



eman zitzaion hasiera eta urrira bitartean egon da abian. Horretarako, Surf Federaziotik bi begirale jator etortzen

dira.

Polita bezain zaila dela esan beharra daukat, baina guztiz gomendagarria; kirola egiteko, jende berria ezagutzeko eta itsaso azpian arrainen artean dantza egiteko. Zoragarria izan da! Mila esker Surf Federazioari eta Zurrumbilo elkarteari!

Aupa neskak, "lortuko dugu, olatuz olatu, ziur, pausorik pauso"!

Emakume Surflari bat

EAJ izan da lehen indarra Deban

Eusko Legebiltzarrerako azken bozketan EAJ alderdia izan da nagusi Deban, 1254 bozkarekin (%43,87). Bigarren indarra EH Bildu izan da, 997 botorekin (%34,88); Itziarren, ordea, koalizioa nagusitu da berriz ere, EAJk baino 104 boto gehiago aterata.

Hirugarren alderdi bozkatuena Elkarrekin Ahal Dugu (322 boto, %11,26) izan da. PSEk 141 herritarren babesak jaso du, PPK 88 bozka izan ditu eta Ciudadanosen aldekoak 24 izan dira.

Irailean 25ean ospatu ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Deban 4.295 herritar zeuden deituta bozka ematera eta %67,03koa izan zen parte-hartzea. Aurtengo emaitzak eta 2012ko hauteskundeetakoak ekarri ditugu ondoko taulara.

BOTOAK ALDERDIZ ALDERDI: DEBA				
	%	Botoak 2016	Botoak 2012	
EAJ-PNV	43.87	1.254	1.213	
EH BILDU	34.88	997	1.256	
E-PODEMOS	11.26	322	-	
PSE-EE	4.93	141	254	
PP	3.07	88	101	
Cs	0.83	24	-	
GANEMOS.SI SE PUEDE	0.34	10	-	
PACMA/ATTKAA	0.24	7	-	
PFV	0.20	6	-	
Ln	0.20	6	-	
RZ-GV	0.10	3	-	

Zinemaldiko euskal zinemaren saria, "Pedaló" filmarentzat Joseba Etxeberria da dokumentaleko protagonistetako bat

Juan Palacios zinemagile eibartarraren "Pedaló" filmak irabazi du Euskal Zinemaren Irizar saria, irailean ospatutako Donostiako Zinemaldiaren 64. edizioan. Bigarren eskuko pedalontzi batean igota, Euskal Herriko kostaldetik hiru lagunek egiten duten 150 kilometroko bidaia nautikoa kontatzen du dokumentalak, eta protagonista horietako bat Deban bizi den Joseba Etxeberria da.

Hendaiaatik abiatu eta Bilbora arte, pedalontzian hamabost egunez bidaiatu zuten Etxeberriak eta bi lagunak (Eneko Belaunzarán eta Jon Lopez) duela lau urte. Eta "bidaia nautiko surrealista" horretan, lagun horiei segika zebilen zinegile hasiberria. Horrela azaltzen du Palaciossek: "Pedalontzia, tamalez ez da Kantauri itsasoko uretan ibiltzeko sortua, eta hasi bezain pronto, zoramen bihurtuko da bidaia: ezbeharra, parranda, biharamuna, xamana, hileta eta abar. Hiru 'marinel' hauen espedizioa dokumentatzen doan heinean, zuzendaria bidaia paralelo batean murgilduko da".

71 minutuko dokumentala da "Pedaló", Juan Palaciosen (Eibar, 1986) lehen film luzea. Zinemaldiko Zinemira sailean proiektatu zuten, eta harrera ona jaso zuen publikoaren alde-



Filmeko fotograma bat (Joseba Etxeberria, atzean).

tik. Errekonozimendua sari ofizialak borobildu zuen gero: Euskal Zinemaren Irizar Sariak Donostia Zinemaldiko edozein sailatan mundu osorako estreinatutako euskal ekoizpenik onena saritzen du. Aurtengo epaimahaian Anjel Lertxundi idazlea izan da presidente. Zinemirako film onena aukeratzeko lanean, Maite Arroitauregi (Mursegoko) musikari eta konpositoreak eta Jon Garaño zinemagileak lagundu diote.

Burdin Kurutzek eta Luzarok antolatutako mendi irteerak, abian

Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak 2016-2017 ikasturterako ikasleen mendi irteera egutegia prestatu dute aurten ere. Irailean eman zieten hasiera mendi ibilaldiei, eta urriaren 23an egingo da bigarren irteera, egun osokoa, Aralarra.

Hilabetero inguruko mendi eta ingurune ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute 3. mailatik gorako ikasleek, beraiei zuzenduta baitaude irteera hauek. Hala ere, guraso edo laguntzaileekin, txikiagoek ere parte har dezakete.

Umeei zuzenduak izanik, ibilaldi errazak eta erosoak dira. Irteera puntua gehienetan estalitako pasealekua izango da (autobus geltokia) eta irteera ordua, berriz, goizeko 8:30. Irteera



gehienak egun osokoak dira -arratsaldeko 4etan edo 5etan itzuliz-, baina badira egun erdikoak ere.

Mendi irteerak ikasleentzat doan izango dira, Eskola Kirolaren barruan baitaude. Bazkideek, nagusiek eta gurasoek, ordea, ordaindu egin beharko dute.

Urriaren 23an Aralarra eta azaroaren 27an Gorbeira joateko proposamena egin dute antolatzaileek. Urtarrilaren 22an Oiz aldera egingo da irteera eta, aurrera begira, beste hainbat txango iragarri dituzte: Arriola-Korostiola-Legazpi, ibilaldi neurtua, Elorrixa-Itziar-Deba, bi eguneko irteera edota Andutz Eguna.

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



EUSKAL JAIA 2016

Irailaren 24an ospatu zen Deban aurtengo Euskal Jaia. Goizean goiz hasita, hamarnaka boluntario ibili ziren lanean bazkarirako frontoia prestatzen, eta zortzi talde aritu ziren lehian Simon Berasaluze plazan marmitako goxoena nork prestatuko. Eguerdia hurbildu ahala, baserriar jantziak, taloak, euskal dantzak eta musika izan ziren protagonista. Eguzkia eta bero sargoria lagun, 680 bat herritar elkartu ziren Aldats pilotalekuko herri bazkarian.

Bazkalostean banatu ziren sariak (bertan zozketatutako urdaiazpikoa eta marmitako lehiaketako txapela) eta Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilarien ardura izan zen pilotalekuan giroa berotzea. Iluntzean Huntza taldeak hartu zien lekukoa plazan, erromeria jendetsua burututa (gauean bigarren saio bat eskaini zuen taldeak).

Lerro hauen bitartez, eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Mila esker Euskal Jaian parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, antolaketa lanetan aritu zaretenoi!





Debako Bandan gora egin du euskararen erabilerak

Otsailetik uztaileira iraun duen ALDAHITZ egitasmoan hartu du parte taldeak

-Zer da ALDAHITZ?

Dinamika berri bat sortzeko egitasmoa.

-Dinamika berri bat zertarako?

Kideen arteko eguneroko harremanetan euskaraz gehiago egiteko.

-Nola hartzen da egitasmoan parte hartzeko erabakia?

Borondatez eta modu kolektiboan; hau da, partaideen %75ek baino gehiagok egitasmoa martxan jartzeko prest dagoela adierazi behar du.

-Eta atzera egin nahi bada?

Posible da. Astero berresten da erabakia. Momenturen batean, gutxienez %75ak, ez balu egitasmoan jarraitu nahi, bertan behera geratuko litzateke automatikoki.

-Zein dira egitasmoaren zutabeak, ardatzak?

EUSLEak dira egitasmoaren ardatz. Taldekideek aukeratzen dituzte (10 partaidetik 2). Horiek taldeko jarduerak guztietan (entsegu, entrenamendu, taldeko afari, partida, emanaldi,...) beti euskaraz egin beharko dute, euskarari utsiko diote; gainerakoek ez.

-Eta baldintzak?

Taldeko guztiek euskaraz ulertzea.

-Prozedura

Eusleek behin eta berriz euskaraz egingo dutenez, gainerako partaideek, tarteak bederen, euskaraz erantzungo dutela suposatzen da, nahiz eta normalean erdaraz aritzeko joera edo ohitura eduki. Pixkanaka-pixkanaka, haien euskarazko dinamikara egokituko dira, talde barruko hizkuntza harremanak euskaldunduz.

Egitasmoa martxan jartzeko proposamena lau talderi egin zitzairen: Kulunka dantza taldeari, Amaiak Bat Futbol taldeko erregional mutilei, Amaiak Bat Futbol taldeko jubenil neskei eta Debako Bandari. Hasiera batean laurek egitasmoa abiatzeko erabakia hartu zuten arren, jubenil neskekin eta Debako Bandarekin egin dugu aurrera.

oso gustura egon naiz, dibertigarria izan da. Beste batzuk aldaketa handirik ez dutela sumatu esan dute. Eta baten bati denbora galtze bat iruditu zaio.

Datu kuantitatiboetara joz, bi hilabeteko esku-hartzearen ondoren, *Beti euskaraz* aritzen direla erantzun dutenak, batez beste, % 16,28 gehiago dira* bandaren kasuan. Hona taula batera ekarrita:

	OTSAILA	%	APIRILA	%
Beti euskaraz (1)	947	75,34	1.356	91,62
Euskaraz gehiago erdaraz baino (2)	183	14,56	58	3,92
Bietan berdin (3)	63	5,01	25	1,69
Erdaraz gehiago euskaraz baino (4)	38	3,02	17	1,15
Beti erdaraz (5)	26	2,07	24	1,62
Jasotako erantzunak	1.257	100	1.480	100

*Harreman posibleak guztira, 1892

Esperientzia positiboa izan da, zalantzarik gabe, ikuspegi askotatik. Emaizta orokorreari begiratuta ez ezik, baita partaideen euren balorazioa kontuan izanda ere:

Inpresio orokorrari buruz galdetuta, oro har, oso ondo eta positibotzat jo dute gehienek. Honakoak esan dituzte: ez da ezer kostatzen eta jendea erraz aktiba daiteke, inoiz baino gehiago egin dugu euskaraz, oso aberasgarria izan da gehiago erabili dudalako, inpresio ona, euskaraz hitz egitea bultzatu du, ondo funtzionatu du, proiektu polita,

Uztailean esku-hartzea amaitu eta ez dugu, oraindik, hirugarren neurketarik egin. Logikoa litzateke erabilerak zertxobait behera egin izana berriro, baina hasierako egoera baino hobea izango dela pentsatzen dugu.

Ondorio orokor modura, bada, honako hauxe: jarraipena ondo samar egitea lortzen denean eta Eusleek hizkuntza araua betetzea lortzen dutenean, egitasmoak funtzionatzen du; hobekuntza agerikoa da.


Bildutako datuei erreparatuta, hainbat puntu aipa daitezke:

**Lehenengo neurketan harreman posible guztien %66 bildu ziren. Bigarrean %78 pasatxo. Bildutako erantzun horietatik ondorioztatutako ehunekoa da hau. Gainerako harremanetan zer gertatu den ez dakigu.



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

-Bandako partaideen artean dezente gehiago hitz egiten da euskaraz gaztelaniaz baino; egitasmoa hasi aurretik ere konstatatu den zerbait da.

-Egitasmoaren hasieran gazteak igo berriak ziren nagusien bandara. Harreman asko finkatu gabe zeuden oraindik. Apirileko fitxetan harreman gehiago jaso ditugu otsailean baino eta sortu diren harreman berri horietan, euskarazko harremanak gehiago dira erdarazkoak baino.

-Nahiz eta abiapuntua euskararen aldekoa izan nabarmen, egitasmoak iraun duen bi hilabeteetan, are eta gehiago hazi da euskararen erabilera (ikusitako taula). Programak funtzionatzen duela erakusten du horrek. Helburua bete da: euskaraz gehiago egiteko aukerak zabaltzen dituen dinamika bat jarri da martxan.

-Indargune modura hartu behar dira bandan izendatutako eusleak. Egitasmoak iraun duen bi hilabeteetan eusleak berberak izan dira, egitasmoa ondo zihoala baloratu eta euren halaxe egitea erabaki dutelako. Taldean karguak dituzten kideak dira gehienak eta gazteentzako erreferente.

-Ahulgune modura aipatu behar izan direla egitasmoarekin bat egin ez



Ander Salegi

duten kideak: ez dugu euren hizkuntza jokaerei buruzko daturik, ez iritzirik. Dena dela, euren aktiboki parte hartu ez arren, euren hizkuntza jokaeretan ere nabaritu da aldaketa.

Jubenil nesken kasuan ez dugu nahikoa datu jaso eta, beraz, ezin dugu balorazio fidagarriarik egin. Bai esan, ordea, jarrera oso-oso ona izan dutela prozesu osoan zehar.

Amaitzeko, esango genuke positibotzat jotzen dugula horrelako zerbait planteatzeko hutsa ere. Gaia taldera eramateak berak eta mahai gainean jartze-

ak berak badu berritik: hausnarketarako bide ematen du, nahiz eta, gero, talderen batek egin duen bezala, aurrera ez egitea erabaki. Egitasmoa sinplea baina eraginkorra dela argi geratu da eta, ikusitako hutsune eta gabeziekin eta jasotako hobekuntza proposamenekin, aurrera begira are egokiago planteatu genezakeela iruditzen zaigu.

Urrats garrantzitsua, gure ustez. Parte hartu duten taldeei eskertu behar zaien. Euren esker ikasi dugu eta euren esker hobetu ahal izango dugu.

Udaleko Euskara Batzardea

ONDORIO OROKORRAK:

·Posible da hizkuntza-ohiturak aldatzea; ez da erraza, ahalegina eskatzen du, baina egin daiteke.

·Taldea bateko hizkuntza-harremanetan eragiteko eta eragin hori denboran zehar iraunkorra izateko, garrantzitsua da talde-ikuspegiz lan egitea. Izan ere, hizkuntza-jokaerak ez dira norbanakoarenak, hartu-emanen sortzen dira. Horrek eskatzen du abiapuntuan erabaki kolektiboa egotea, hots, taldeak bere borondatez erabakitzea aldatetarako prozesua abiatzea.

·Euskararen aldeko testuinguruak sortzea da gakoa, eta testuinguru horietan taldeak berak onartzea hizkuntza-arau berriak. Horrela, taldekideek euren hizkuntza-jokaerak aldatzeko zilegitasuna eta babes soziala izango dute, hau da, ez dute norbanako moduan erabakiko euskaraz egitea, taldearen erabakiz baizik. Ondorioz, hiztunak euskaraz eroso jarduteko aukera eta eremu adostua izango du.

·Taldekide gutxi batzuen hizkuntza-jokaerak aldatzea nahikoa da ustekabeko aldaketak eragiteko.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa


Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



2016ko urria
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

HASIERA EMAN DIOGU 2016-2017 IKASTURTEARI

Irailaren 7an, 2016-2017 ikasturtearen aurkezpena izan zen Mendata Institutuan.

Udako opor luzeen ondoren, ikasleok urduri eta gogotsu itzuli ginen ikastetxera. Aurkezpena irailaren 7an izan genuen, 11:00etan. Ikasleok bakoitzari dagokigun gelara joan ginen. Bertan, tutoreek ongietorria eman eta aurkezpena egin ostean, honako dokumentu hauek banatu zizkiguten: ikasturtearen egutegia –eskola-egunak eta jaiegunak agertzen dira bertan–, ikastetxeko ordutegia, taldeko ordutegia, arloetako irakasleen izenak, ebaluazio egutegia eta abar.



Ikastetxeko ordutegiari dagokionez, iraillean eta ekainean jardunaldi trinkoa edo jarraia izango dugu, hau da, goizez 8:30etik 14:30ak arte; urritik aurrera eta maiatza bukatu bitartean, aldiz, goiz eta arratsaldeko ordutegia edukiko dugu (8:30-12:45 eta 14:15-16:00).

Ikasturte honetan 30 irakasle eta orientatzaile bat daude zentroan. Aurten guztira 236 ikasle daude matrikulatuta institutuan, 12 ikasgelatan banaturik.

Ikasturte hau iazkoa bezain ona izatea espero dugu. Eta, bide batez, agur esan joan diren ikasle eta irakasleei eta ongietorria ikastetxera etorri berriei.

Zergatik dute itsulapikoek txerritxo itxura?

Edozein gauzak du bere azalpena, eta itsulapikoen itxura ezagunak ere, txerritxoarenak alegia, badu berea. "Muy Interesante" aldizkariak azaldutakoaren arabera, hain zuzen ere, txerria oparotasunaren eta ugaritasunaren ikurra izan da beti.

Europako familia txiro askok txerri bat gordetzen zuten, egoerak txarrera eginez gero



saldu ahal izateko. Horregatik, txerri bat edukitzea etorkizunerako nolabaiteko bermea izatea zen.

Euskal Herrian, adibidez, txerria hiltzeak urtebeterako jana edukitzea zekarren.

Horregatik guztiagatik, lehenbiziko itsulapikoek txerriaren itxura izaten zuten, aurreztearen eta etorkizunerako gauzak gordetzearen adierazlea zelako.

ELKARRIZKETA

ROBERTO FERNANDEZ BRAVO

Atezain lanetan Mendatan



Roberto Fernandez Bravo atezain lanetan ari da, ordezko gisa, Mendata institutuan.

Berak egiten duen lanari buruzko galderak egin dizkiogu elkarrizketa honetan.

Nongoa zara? Nondik zatoz lanera?

Billbokoia naiz. Trenez etortzen naiz, 6:00etako tren hartuta.

Euskara txikitatik dakizu?

Ez, ikasten ari naiz eta euskaldun berria naiz.

Euskaldun berria zara, beraz. Non ikasi duzu euskara?

Indautxuko euskaltegian, Lizardi euskaltegian eta Gabriel Aresti euskaltegian aritu naiz ikasten (hirurak daude Bilbon). Gero Basaurin ere udal euskaltegian egon nintzen.

Gogorra egiten al zaizu euskaraz mintzatzea?

Noizean behin bai, hitz teknikoak esaterakoan, adibidez.

Hilabete bat daramazu ikastetxe honetan. Zer iruditzen zaizu?

Lau hilabete dira eta ondo dago; hain goiz etorri

arren, gustura nago bertan.

Zein da zure eginbeharra Mendatan?

Denetarik egiten dut: gauzak konpondu, fotokopiak egin, enkuadernatu, ateak ireki eta itxi, leihoak zabaldu, pertsianak igo eta jaitsi...

Lan gogorra iruditzen al zaizu?

Etengabeko lana den arren, ez zait gogorra iruditzen. Desberdina da lehen egiten nuen lanarekin alderatuta.

Zure lanetik zer iruditzen zaizu gogorrena?

Jendea "aguantatzea" (*kar, kar, kar*).

Eta zer gustatzen zaizu gehien?

Gauzak konpontzea, adibidez.

Ikasleekin ondo moldatzen al zara?

Beno, bai... gehienak zintzoak baitira.

MENDATARA IRITSI BERRI

Udako oporrak bukatu ondoren, ikasleok beste ikasturte bat hasi dugu. Oraingo honetan, 1.DBHko ikasleei egin diegu inkesta, Lehen Hezkuntzako ikastetxetik institutura pasatzean igarri dituzten aldaketen berri izan nahian. Hona hemen guk egindako galderak eta haiek emandako erantzunak:

- 1.- Sarrera ona izan al duzu?
- 2.- Bazeneukan eskolara itzultzeko gogorik?
- 3.- Seigarren mailan zer iritzi zenuen DBHri buruz? Eta orain?
- 4.- Zure iritzi, aldaketa handia al dago LH-ren eta DBH-ren artean?
- 5.- Zailak iruditzen al zaizkizu dituzun arloak? Zein gehien?
- 6.- Zein da zure irakasgairik gustukoena?



**June
Sudupe**

- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- DBH zatarrak zela uste nuen, eta oraingoz erraza dela dirudi.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez, ez zaizkit zailak iruditzen. Zailena Gizarte.
- 6.- Plastika gustatzen zait.



**Aimar
Carsi**

- 1.- Ez.
- 2.- Ez.
- 3.- Ospital itxura zuela uste nuen eta orain ere berdin.
- 4.- Bai.
- 5.- Batzuk bai eta beste batzuk ez. Ingelesa eta Euskara.
- 6.- Tekno.



**Izar
Froilan**

- 1.- Bai, sarrera ona izan dut.
- 2.- Ez.
- 3.- Erraza zela uste nuen. Orain, ez zaila, ez erraza.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez. Euskara.
- 6.- Tekno.



**Rafael
Sanchez**

- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- Ospital itxura zuela. Oraingoz erraza.
- 4.- Ez.
- 5.- Besterik gabe. Euskara.
- 6.- Tekno.



**Oihane
Izquierdo**

- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- Ospital bat zela. Berdina uste dut.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez. Euskara.
- 6.- Tekno.



**Aitor
Gorosabel**

- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- Ospital bat zela eta kontrol gehiago egin behar zirela.
- 4.- Pixka bat.
- 5.- Ez. Euskara.
- 6.- Gorputz Heziketa.

EGILEAK: Eider Perez, Nerea Sanz, Eneko Arriola eta Intza Sudupe


DENBORA-PASAK

TXISTEAK

*Soldadu batek galdetu dio beste bati:
 -Zertan ari zara?
 -Hemen, emazteari idazten!
 -Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
 -Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!!

*Kartzelara iritsi berria den batek galdetzen dio beste bati:
 -Eta zu zergatik zaude hemen?
 -Ez didatelako ateratzen uzten!

LABIRINTOA



SUDOKUA

				2			7
2		9	6				
1		8	4				
	9		1	6			
	5	6				9	3
				4	5		8
				6	1		5
				1	3		9
9			2				

ASMAKIZUNAK

*Gona luzea du mihia motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotza. Zer da?

*Tramankulu honek alaitzen ditu tristeak, etengabe emanaz musika eta albisteak. Zer da?

ERANTZUNAK:

Asmakizunak:
 1.- Kanpaita
 2.- Irrotia

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia
 Maria Perez
 Maite Ramos
 Nerea Sanz
 Intza Sudupe
 Eneko Arriola

Jone Gomez
 Janire Lopetegui
 Eider Perez
 Irune Ruiz
 Maider Almortza
 Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

URRIAK 23, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta: Aralar.

-17:00. **Ipuin kontaketa**: Mirian Mendoza kontalariaren saioa. Agirre jauregiko ispi-luen gelan.

URRIAK 28, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

AZAROAK 1, ASTEARTEA

-Itziarko Peria. Goizetik hasita, Itziarko poligonoan.

AZAROAK 13, IGANDEA

-Behobia San Sebastian lasterketarako autobusa antolatu du Xtrem Taldeak. 8:00etan irtengo da, parte-hartzaileak proba hasten den lekura eraman eta lasterketa amaitutakoan bueltan ekartzeko.

Izena eman behar da aurrez (Landa janari dendan).

-**Ipuin kontaketak**. Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7urteko haurrentzat/ 18:00etan 7-12 urtekoentzat.

AZAROAK 20, IGANDEA

-10:00-12:00. **Nordic Walking** hastapen ikastaroa. Izen-ematea Debako Turismo Bulegoan.

AZAROAK 19-27

-**Hondakinak prebenitzeko Europako Astea** azaroaren 19tik 27ra ospatzen da. Debanatura elkarteak, Foru Aldundiaren laguntzaz, kontzientziazio kanpaina abiatuko du eta "**Herria garbi nahi dugu, ekin!**" lehiaketa antolatu du. Ekimen horren inguruko informazio gehiagorako, jarri harremanetan Debanatura elkartearekin: <http://herriakgarbirikzsb.blogspot.com.es/> edo 695 783 656.

XI. Tene Mujika Beka

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XI. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena.

Gure herriaren azken 60-70 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko proiektuak aurkez litezke (biografiak, kronikak, erreportajeak, elkarrizketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, eta aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2016ko abenduaren 11. Oinarriak: www.deba.eus.

Ikastaroak

KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du urrian (16:00etatik aurrera) eta goizez arituko da azaroan. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Ofimatika, Oinarrizko Interneta, Google aplikazioak... Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **urriak 24, 25, 26, 27.**
azaroak 11, 12, 13.

Burgoa Zuazo: **urriak 28, 29, 30.**
azaroak 7, 8, 9, 10.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)



DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urriak 22
azaroak 12 eta 19

BURGOA ZUAZO: urriak 29 / azaroak 5

9:30 - 13:30



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy

NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

**Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!**

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

**Bordatxo
JATETXEA**

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

GO USTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauefan traioak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**

**AUKERA
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

No. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

**ISABEL
FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA
943 029 186

IAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

**LARRAMENDI
ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoi**iko**

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA) - drenaje linfático - lesiones - ...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podología

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

mintzalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ.



**EMAN
IZENA!**

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,
jende berria ezagutzeko,
ilobarekin hitz egiteko.
Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.
nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Urrian eta Azaroan

Zuhatza Euskara Elkarte

Informazioa: Zuhatza Euskara Elkarte, Ifar kalea, 12 behea • 943 19 13 83 • Udaletxeko Harrera

Antolatzaileak



Babesleak

